

Arrasate

1000ko
azaroak 6
470. zenb.

Mendea pasatxo

Aita Menni,
bainu etxetik
ospitale psikiatrikora



Deba bailara
zeharkatuko duen
tranbia egingo du
Eusko Jaurlaritzak

Gozatu udaz urte osoan zehar



 **902 123 456**
NaturGas, Euskadiko gasa



NaturGas



Sociedad de Gas
de Euskadi, s.a.

Grupo EVE

S. Altuberen *Erderismos*-en urteurrena

Lehenengo astelehenean ehun eta hogei urte bete ziren, Sebero Altube jaio zenetik. Seguruena, ez dira hauek aldzikari honetan eta arrasatear linguista —beste gauza batzuen artean— honen gainean idazten ditudan aurreneko lerroak. Baina ez dut jakin nahi horrela den ala ez. Nahikoa dut Altubek ordenadorearen aurrean ordu erdiko ekinaldia merezi duela gogoratzea. Niretzat behintzat, ariketa osasungarria da, sarritan alderantziz pentsa dezakedan arren, batik bat desertuan diharduen ahots bakartia naizela iruditzen zaidanean.

Euskal kultura eta zientziaren esparruan argi dirdira-tsuarekin nabarmendu zen arrasatear hark, beste lan askoren artean, obra interesgarri bat utzi zigun, aurtan hirurogeita hamar urte beteko



JM Velez de Mendizabal

dituena. *Erderismos* lan bikainaz ari naiz eta efemerrideak euskararekiko oraingo geure jarrera nolakoa den pixka bat pentsa dezagun bikain datozela iruditzen zait.

Seberok ederki asmatu zuen gure hizkuntzari kanpotik etor zekizkiokeen arriskuak non zeuden iragartzean. Garbi zioen ahozko hizkuntza biziari

eman behar zitzaiola lehenasuna, idatzizko gehiegikeria hertsietan erori gabe. Euskararen gaineko urrezko araua ahozko hizkuntzan jartzen zuen berak, geure mintzaira ahal den guztian eta toki guztietan erabili behar dela azpimarratuz.

Horixe bera da gaurko nire mezua, herriaren hizkuntza bizia den bitartean itxaropenik ez dela faltako adieraziz, edozein mintzairaren ezinbesteko zutabea eguneroko

praktika etengabea baita. Gero etorriko dira gainerako bikaintasunak, literatura idatzia barne. Izan ere, zertarako nahi ditugu liburuak, kalean girorik ez bada? Altubek ongi ezagutzen zuen horren ondorio bat, hain zuzen ere laterarekin gertatu zena: liburu kopuru itzela eduki arren, hizkuntza hila da.

Sebero jipoitu egin zuen hainbat kritikok, Azkuek berak esaterako. Baina inork ez dio meriturik kendu ahal izan euskal linguistikaren alor bihurrian hark jarritako teoriari. Ausarta izan zen bere postulatueta, eta garbia, hizkuntzak izaki bizidunen antzera zaindu behar direla esan zuenean. Hirurogeita hamar urte betetzen dira *Erderismos* kaleratu zuenetik. Eta urtetan euskal sintaxiari buruz egindako lanik burutsuena dela aitortu du gaur egun euskal hizkuntzalaritzan diharduen askok. Teoria baino, ideia hobeto jorratu zuela diote gehienek. Eta agian horri heldu beharko genioke, Altuberen inguruko ospakizun isil honetan: *atara aixelara geure izkera maite au, erabilli beti ta beti, edonun eta edonorekin...*

“Euskararen gaineko urrezko araua ahozko hizkuntzan jartzen zuen”

“Garraio sailburuak Debarrorako proposatu duen tranbiak alde on asko ditu”

Xabier Zubizarreta

329

langile izango litzuke udalak, zerbitzu guztiak bereak balira

Arrasateko Udalak berez 152 langile ditu, kontratu egonkorra dutenak. Beste 28 aldi bateko kontratuekin dabilta. Zeharkako zerbitzuetan beste 111. Mankomunitatean 25 dagozkio eta diruz laguntzen dituen zerbitzuetan 41.

ITURRI ONETIK

EHko alkateak Arrasaten

Joan den urriaren 20an EHko hainbat alkate (Abadiño, Andoain, Astigarraga, Elorrio, Hernani eta Tolosakoa) izan ziren Arrasateko Udala ezagutzen. Udaletxea eta udalaren barne funtzionamenduari berri jasotzen.

Harrituta joan omen ziren. Izan ere, Arrasateko Udala nabarmendu egiten da zenbait arlotan. Pertsonal gastuak Gipuzkoako txikienetakoak ditu: aurrekontuen %24. (Eibarren, esate baterako, gastu horiek aurrekontuen %31 dira). Funtzionamendu gastuak ere %22 dira. Diru laguntzetan, berriz, Arrasate besteen gainetik dabil, %14; besteak %5ean dabilta. Inbertsioetan ere Gipuzkoako altuenetako da: %28. (Donostiak %14). Itzultzekotan geratu omen ziren.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitateak:** Nerea Zallo Aranzazu, Lagunilla, Arantzazu Arrojaibe. (Tel.: 943 71 23 91) 943 71 23 92). **Administrazioak:** Maite Urriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90) **Disenoiak:** Madi Trutuelo. **Asteburuetako berriemakileak:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salala, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankoa kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Madi Trutuelo.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiararen laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kulturaren laguntza

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 5**
• Irizar, Erguin
- Larunbata, 6**
• Amezua, Santa Marina
- Igandea, 7**
• Zabala, Zarugalde
- Astehena, 8**
• Ruiz, Maalako Errabala
- Astearte, 9**
• Morales, San Andres
- Asteazkena, 10**
• Azkoaga, Ferrerías
- Osteguna, 11**
• Azkoaga, Iturriotz

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguualtorica 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua. 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara 943 76 55 76
- DYA**
Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdia) 943 03 53 00
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 53 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
• Fax zerbakiak: 943 03 05 14
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
Ohati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07
- Ertzaintza**
Zuzenketak
Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**
Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia 943 79 58 77

ZERRAJERAKO ERAIKINAK

Hemendik egun gutxira Zerrajerako pabilioiak botatzen hasiko dira, etxe berriak eraikitzeko. Baina nire iritzian, eta Arrasateko pertsona askoren iritzian, Zerrajeran badaude mantendu beharko lirakeen zenbait eraikin.

Zerrajeran izugarritzko ondare arkitektonikoa dauka, eta gehiagoko barik, ezin dugu galtzen utzi. Zerrajerako Fundizio zaharra, bere burdinazko zutikoekin, adreiluzko hormekin eta egurrezko erremateekin, besterik gabe desagertzen utzi behar dugu ala Etxaluze ondoko eraikinak edo Kontxosinoko tximinia ezin dira gorde, ezin dira bota gabe utzi?

Zenbat holako eraikin geratuko dira Euskal Herri osoan, ba? Arkitektura industrialaren adibide gorenari-koak direlakoan nago. Non dago Zerrajerako biltegien eraikinean azaltzen diren hormigoizko arkuen modukorik?

Gainera, eraikin horiek berriztatzen lan bat egin ondoren, beste erabilera baterako berregoki daitezke. Arrasatek zergatik ez du behingoz abiatzen museo industrialak? Zerrajerako Fundizioaren eraikina ez litzateke izango leku egokia horretarako? Eta Etxaluze ondoko pabilioietan, "decapado Brunner" eta biltegia zeuden eraikinetan ez dira egokiak edozein erabileratarako? Bere hormigoizko arku garai eta zabalekin, Arrasateko eraikin ederrenetarikoa da, eta Euskal Herriko ondare arkitektonikoa ez dira asko izango horrelako adibidean, hormigoizko bobedak edo gangak dituzten eraikinak, alegia. Eraikin hori, esfortzu handirik gabe, moldaketa bat egin ondoren edozein erabileratarako egoki daiteke. Liburutegia askoz hobeto egongo litzateke hantxe Monterrongo eraikin ilunean baino; gainera, biblioteca handiagoa egiteko posibilitatea emango luke edo

kiroledegi txiki bat edo erakusketa areto duin bat edo bailararako dioxosozko telebis-taren estudioa... zer ez.

Ziur egon zaitezte eraikin hauek gordetzen baditugu Arkitektura eta Arteko ikasleak Arrasatera etorriko direla eraikinok ikustera. Arkitektura erlijiosoari diogun errespetuaren pitin bat beste arkitektura eder honi bagenio, eraikin horiek ez lirakeke betiko galduko.

Gainera, gutxienez, hori mantentzea zor diogu gure iraganari, gure paisajeari, geure buruari. Arrasatek, hainbeste ondare galdu duenak, Gerraneko jauregia, Kontxosinoko zubia, Musakolako Roneoko lantegiaren eraikina, Gerra Zibilaren osteko euskal estiloko etxeak... merezi du Zerrajerako eraikin horiek gordetzea. Maita dezagun gehiagore burua, ez gaitetzen izan hain berrizale eta sunsitzaila. Erakunde publikoek, eta bereziki Arrasateko Udalak, egin dezatela zerbait gure ondare arkitektonikoa gordezteko.

Ramon Ugalde

Zuzenketa

Joan den astean esan genuen AEDk antolatu duela Jon Alonsok emango duen idazkuntza ikastaroa. Antolatzailea, baina, Udal Liburutegia izan da. Barka okerra.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Irratia entzuteko ohiturarik baduzu?

Irratia jende askoren lagun bihurtu da.



Jose Barquero
(45 urte)
Langilea

Gutxitan. Emazteak jartzzen duen irratia entzuten dut, nik ez dut ohiturarik.



Txaro Gartzia
(51 urte)
Etxekoandrea

Bai, Segura Irratia entzuteko ohitura dut. Oso gogoko dut irrati horren estiloa.



Jon Lezeta
(21 urte)
Ikaslea

Batzuetan bai, baina ez egunero, ohitura bezala. Informatiboak eta kirolak entzuten ditut Euskadi Irratian eta musika Euskadi Gaztean.




Maite Vazquez
(37 urte)
Langilea

Bai, ahal dudan guztietan. Gorbea Irratia eta Radio Euskadi entzuten ditut.



Mari Asun Sarrionandia
(35 urte)
Langilea

Autoan noanean entzuten dut, osterantzean ez. Euskadi Irratia entzuten dut.



Santi Arana
(77 urte)
Erretiratua

Autoan sarri eta etxean ahal dudanean. Kirola entzutea atsegin dut, hemengo irratia kateetan.



Igone Ezkibel
(28 urte)
Langilea

Telebista bai, baina irratia ez. Atsegin dut, baina ez dut ohiturarik.



Gorka Aretxaga
(33 urte)
Langilea

Autoan noanean musika entzuten dut, Euskadi Gaztea, batez ere.

Sagardotegia

ITURRIETA

Aranga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

Alkoholarekin arazoak dauzkazu? Agian, "Alkoholzale Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholzale Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 943 61 93 38

5

ostirala

■ ZINEA

Nunca me han besado Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

■ JAM ARETOA

No use for a name, Snuff, Tilt, Mad Caddies eta *Consumed* taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan. Jaialdia 20:30ean hasiko da. Sarrera aurrez 2.000 pta eta hantxe, 2.300 pta.

6

larunbata

■ ZINEA

Una terapia peligrosa, 19:00etan eta 22:00etan, Alai zineman.

■ AUTO ERAKUSKETA

Deba Garaiko Aukerako Autoen I. Erakusketa egingo dute Arruenako parkean. Goizeko 09:00etatik 19:00etara gongo dira ikusgai.

■ TALOGINTZA IKASTAROA

Ekin emakume taldeak talogintza ikastaroa antolatu du. Ikastaroa goizeko 10:00etan hasiko da Ekin Emakume Taldeak Pablo Urangan duen egoitzan.

■ PIRAGUISMO IKASTAROA

Bergarako igerilekuan hasiko da, goizeko 11:00etan. Deba Garaiko Mankomunitateko kirol zerbitzuak antolatu du ikastaroa.

■ REIKI IKASTAROA

Arrasateko Yoga elkarteak 16:00etatik 20:00etara eskainiko du lehen mailako ikastaroa. Ikastaroak igandean segituko du.

■ JAM ARETOA

Metal Church, Get Animal eta *Valhala* taldeek kontzertua eskainiko dute 22:00etan, Bergarako Jam aretoan. Sarrera aurrez 2.200 pta eta hantxe, 2.500 pta.

7

igandea

■ ZINEA

Una Terapia peligrosa, 19:00etan eta 22:00etan, Alai zineman.

■ AUTO ERAKUSKETA

Deba Garaiko Aukerako Autoen I. Erakusketa egingo dute Arruenako parkean. Goizeko 09:00etatik 19:00etara gongo dira ikusgai.

■ EUSKAL PRESOAK

Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herrira taldeak, Zاراia eta Murruxio menditako taldeek eta UDAK irteera antolatu dute Kurtzebarri, Murugain eta Asensio gainetara. Tontor bakoitzean zapi bana jarriko dute presoek Euskalerriratzea eskatzeko. Irteera 09:00etan, udaletxetik.

■ PIRAGUISMO IKASTAROA

Bergarako igerilekuan segituko du, goizeko

11:00etan, Deba Garaiko Mankomunitateko kirol zerbitzuak antolatu du.

■ JAM ARETOA

Jean-Jaques Milteau Europako armonika jolerik onenak kontzertua eskainiko du Bergarako Jam aretoan, bere blues, jazz eta rock taldearekin batera eta Manu Galvin gitarrak jolearen laguntzarekin. Kontzertua 20:30ean hasiko da.

8

astelehena

■ ZINEA

Una terapia peligrosa, 19:00etan eta 22:00etan, Alai zineman.

9

asteartea

■ ZINEA

Una terapia peligrosa, 19:00etan eta 22:00etan, Alai zineman.

■ HIRUGARREN MUNDUA MINTZAGAI

Harreman Gobernuaren Kanpoko Erakundeak Kongoko Errepublika Demokratikoan 20 urtez izan den Mila Salvador gonbidatu du Eskola Politeknikora, bere bizipenak kontatzera. Zaire eta Afrikari buruz jardungo du arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Eskolako areto nagusian.

My ile apaindegia

Alfonso X Jakintsua, 1 behea (Grupo San Juan) • Tel.: 943 79 79 65

- Gizon eta emakumezkoentzako ile apaindegia
- Mozketa eta kolore joera berriak
- Txanda aurrez eskatu

Ordutegia:

- Astelehenerdik ostiralera: 09:30 - 12:00 eta 14:00 - 19:30
- Larunbatetan: 08:30 - 13:30



11 osteguna

■ LITERATURA MINTZAGAI

Teresa Duranek literaturari buruzko hitzaldia eskainiko du Monterronen, 19:00etan. Diseinatzaile grafiko eta pedagogiako lizentziadun honek hainbat liburu idatzi eta sariak ere jaso ditu.

■ JAM ARETOA

Hefner eta *Mondo Fumatore* taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan, 21:30ean. Emanaldia Bergarako Udalak antolatuta du. Sarrera 1.000 pta kostako da eta gazte eta langabeentzat, berriz, 750 pta.

■ LOGOPEDIAREN EGUNA

Aelfa eta Ale elkarteek Logopediaren Eguna dela eta, doaneko telefono bat izango dute martxan egun osoan, logopediari buruzko kezak argitzeko.

■ EUSKARAREN TUNELA

Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatu duen Euskararen Tunela erakusketa dela eta, azaroaren 12an afaria egingo dute, Roneon jarriko den karpan. Txartelak AEDn, Hire liburudendan eta Irati tabernan, 1.500 pta.n.

■ KIROL POLITIKARI BURUZKO TOPAKETA

Deba Garaiko Mankomunitateko kirol zerbitzuak Kirol politikari buruzko topaketa antolatu du azaroaren 26rako, Arrasaten. Izen ematea zabalik dago. Horretarako Euskadiko Kutxara jo dezakezue. Matrikula, 5.000 pta.

■ PSIKOESTIMULAZIOA

ICTE zentroak "psikoestimulazioa demenzietan" gaia lantzeko ikastaroa antolatu du abenduaren 13tik 17ra bitartean.

Interesatuak 943 77 16 99 telefonora dei dezakete edo Nafarroa kalean zentroak duen egoitzara joan.

■ **AEK-REN ZOZKETA**
20.717 da AEKren zozketako zenbaki saritua.

■ CARMINA BURANA SUDC elkartearen 35.

urteurrena ospatzeko, Goikobalu abesbatzak kontzertua eskainiko du abenduaren 19an. Orain dela urte batzuk eskaini zuten Carmina Burana opera eskainiko dute berriz ere. Hori dela eta, Mozarten Requiemean eta aurretik Carmina Burana operan kantari izan zirenei deia egin die abesbatzak, entseguetan parte har dezaten. Saioak ostegunetan izango dira, arratsaldeko 20:00etan Gazteluondoko ikastolan.

■ MARGO ERAKUSKETA

Elena Arroyo santurtziarrek bere margo lanak jarri ditu Toki-Eder kafetegian. Erakusketa azaroan egongo da bertan.

■ YOGA IKASTAROA

Eskoriatzako Dharma yoga zentroak yoga ikastaroa antolatu du. Eskolak astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etan, 19:00etan edo 20:30ean dira. Meditazio eskolak, berriz, ostiralean 20:30ean. Argibideak 943 71 48 79an.

■ LITERATURA LEHIAKETA

AEDk XIII. Arrasate lehiaketak antolatu ditu, ipuna, poesia eta bertso-paperak ataletan. Lanak aurkezteko epea 2000.eko otsaila arte. Argibideak: AEDn.

■ MARI SORGIN

Abesti xarmant batek dioenez, guztia zen xamurragoa printzesa gatibuak, printze urdinak eta gaztelu distiratsua zirenean. Horixe da Taupada txotxongilo taldeak *Mari Sorgin* lanean erakusten duena. "Gizonak eta emakumeak ikaragarri onak edo benetan gaiztoak ziren garai zoragarrietara garamatza". Hori bizi nahi duzenok, Amaia antzokira joan larunbatean, azaroaren 6an, arratsaldeko 17:00etan. Sarrera 300 pta kostako da.



Gazte Sailerako eragilea behar da AEDn

EGUN ERDIRAKO LANPOSTUA

Kontuan hartuko da:

- Euskara maila
- Gazteekin esperientzia izatea
- Ikasketak

Curriculumak azaroaren 10a baino lehen bidali AED elkartera:

AED elkarte

Pablo Uranga, 6 behe • 20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 21 17 • Faxa: 943 79 74 01

USTEAK USTE

Martin Luther

Bere herrian eta nazioartean horrela da ezaguna. Gure artean, berriz, Martin Lutero moduan.

Don Martinek Musakolako eskolan azaldu zigunez, infernuko sutara kondenaturik hil zen. Haren bekatuak: Erromako elizaren kontra matxinatu izana eta, apaiz agustinoa izanik, moja ohi batekin ezkontzea.

Juduen ondoren —haiek Jainkoa bera hil baitzuten— hura omen zen munduko gizonik gorrotatuena. Don Martinen hitzak sutan grabaturik geratu zitzaizkidan eta, lagun protestanteak eta juduak ditudan arren, badirudi beti geratzen dela horrelako susmo txar bat horien inguruan. Haren izena alemanez idazten dudanean soilik desagertzen da maisu ohiaren sorginkeria.

Ausburgon eskumikatu zuela 478 urte igaro ondoren, eliza katolikoak agiri bat izenpetu zuen joan den astean, protestanteen tesiak onartzu eta Luterori eskumikua kenduz.

Nazional-katolizismoaren atzaparretan hezi gintuzten haurrok apur bat askeago gara orain.

Joxe Aranzabal



Elgeako haize-zentrala

* Josu Azkarate

1998ko uztailaren lean, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailburuordetzaren erabaki bidez, ingurugiro-eraginari buruzko aitorpena egin zen, ingurugiroaren eta baliabide naturalen babes egokia erabakitze-ko. Elgea-Urkila mendilerro-rako dagoen beste proiektu zabalago baten barruan koka-tu behar da proiektu hori.

1997ko martxoaren 20an Eusko Legebiltzarrak ez legezko proposamen bat onar-tu zuen Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailak haize bidez-ko energiaren sektoreko lurral-de egitasmoa presta zezan.

Une honetan burujabetza lortu nahian dabil Euskal Herria eta, beraz, energia-baliabide naturalen edo-zein garapen mota sek-torekako lurralde egi-tasmoen bidez arautu behar da.

Energiaren sekto-re-a funtsezkoa da Eus-kal Herriaren eraikun-tzan eta horrenbestez, ahalik eta buruaskitاسun handiena lortzera jo behar-

ko dugu, gure baliabideen mugaz ere jabetuta.

Argi dago aurrez haize-energiaren sektoreko lurral-de egitasmoa egin aurretik makroproiektu hau egitea galarazten ez badugu, beti-koen oportunismoa izango dela garaile eta aurrekaria ezarri eta aurrerantzean modu horretan jokatu da Euskal Autonomia Erkidegoan haize-parkeak jartzerakoan.

Orrialde hauetatik, oha-rra bidali nahi diegu etorki-zunean Autonomia Erkide-goan jarriko diren haize-par-keen eragina jasateko arris-ku-a duten lurjabe guztiei, argi egon daitezen, lursail

horiek erostera espekulatzai-leak etorriko zaizkie eta. Eta udalei, berriz, haize-energia-ren sektoreko lurralde egi-tasmoa garatzea eska deza-ten.

Egitasmo bereziaren ara-bera, bertako erabakiak bat datoz udalerrri afektatuetan indarrean dagoen planea-menduarekin; gure kasuan, Eskoriatzakoan, ez da hala; baina ez zuen inork erreku-rritu eta dagoeneko ezin da ezer egin, antza.

Argi utzi nahi dut ez gau-dela Euskal Herrian haize-zentralak jartzearen kontra; baina gertatzen ari den nahas-mahasa ez zen gertatuko aurrez haize-energiari buruz-ko lurralde egitasmoa landu izan balitz.

Hori dela eta, atzerakizun gehiagorik gabe aipatu egi-tasmoa edo/eta energia berriz-tagarriei buruzkoa lantzea eskatzen diogu Eusko Jaur-laritzari. Eta ezin dugu ahaztu bertan funtsezkoa dela zentralen garapena eta erabakiak hartzeko guneetan udal erakun-deek ere parte hartzea.

Argi utzi nahi dut ez gaudela Euskal Herrian haize-zentralak jartzearen kontra

* Eskoriatzako Udaleko Ingurugiro eta Gazteria zinegotzia

 **Txitxinpe**
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasealdea, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiraletan
5etatik Betara.
Tel.: 943 79 26 99

Microsoft Windows 98

gida liburua doan

ERANTZUNA BEREHALA

- ▶ Irakurterraza
- ▶ Argibideak urratsez urrats
- ▶ Ikono eta irudi argigarriak
- ▶ Sarrerak ordena alfabetikoan
- ▶ 160 orrialde koloreetan
- ▶ Couche paperean inprimatua
- ▶ Tamaina: DIN A4

Nola jaso dezaket WINDOWS 98 gida liburua?


1- Azaroaren 14ko egunkariarekin batera plantilabat jasoko duzu. Hor itsatsi behar dituzu hurrengo egunetan egunkariak argitaratuko dituen kupoiak.

2- Azaroaren 27an banatuko dugu azken kupoa, eta azaroaren 28tik aurrera jaso ahal izango duzu zure kioskoan Windows 98 gida liburua. Hasieran jaso duzun plantila, eguneroko kupoiak itsatsita dituela, zure kioskoari eman beharko diozu.


3- Kupoiaren baten faltan gelditzen bazara, azaroaren 28an ordezkotako bat banatuko dugu; falta zaizun edozein kupoi ordezkotako dezake horrek.

OHARRA: liburua eskuratu ahal izateko, banaketa arazorik ez edukitzearren, 200 pezeta ordaindu beharko da.

HARPIDEDUN guztiak etxean jasoko dute liburua doan, kupoirik bildu gabe.



Babesleak:



www.euskadi.net




Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura, Enkaria, Turismo eta Kirol Departamentua
Departamentu de Cultura, Enkaria, Turismo eta Deporte
www.gipuzkoa.net



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
www.bizkaia.net



Egileak:



Zure independentzia!



astea bi hitzetan

■ Euskal presoen alde

Ostiralean, gaueko 20:00etan hasita euskal presoen aldeko bilkura egin zen udaletxe aurrean. Senideak elkarteak deitu zuen bilkura. Baina ELA eta LAB sindikatuen eta EAJ, EH, EA eta EB alderdien sostengua jaso zuen. Eskatera, berriz, presoek Euskal Herriratzea izan zen.

■ Elgea ikusten

Elgean egin beharreko haize zentrala dela eta, orain arte egingandako lanak ikusteko ibi-

laldia izan zen larunbatean. Araotzetik irten eta Usakotxenatik zehar Elgeako mendilerroaraino igo ziren ibilaldian parte hartu zutenak. Antolatzaileen esanetan, gutxira, 200 bat lagun joan ziren.

■ Garabia lanerako prest!

Astelehenean heldu zen garabia Mondragoera. Ondo dabilen jakiteko frogak egin ostean, asteartean ekin zion lanari. Beraz, hemendik aurrera, gaizki utzitako autoak eraman egingo ditu garabiak.

Bereziki oinezkoen pasabideetan, biribiletan eta garajeen edo antzekoen sarrertan utzitako ibilgailuak eramango ditu garabiak. Gauza bera egingo du zirkulazioa oztopatzen duten ibilgailuekin eta baita kalean bertan behera utzita dauden guztiak ere.

Mota guztietako ibilgailuak kenduko dira, gainera. Txirrinduetatik hasi eta traktoretaraino. Isunak, berriz, 2.000 pezetatik 8.000raino egingo dira.

■ Berrikuntzaren aroa

Ikerlanek prentsaurrea eskaini zuen asteazkenean Donostiako Kurtsaalen. Han adierazitakoaren arabera, ikerketarako zentro honek 652 milioi pezetako inbertsioa egingo du datozen lau urteotan, mikrosistemen teknologia garatzeko.

Iaz 1.655 milioi pezetako sarrera izan zuen zentroak. Aurten 1.750 milioi pta.ko sarrerak gainditzea espero dute.

Prentsaurrearen ostean, "Berrikuntzaren aroa" izeneko jardunaldia egin zuten. Josu Jon Imaz, industria sailburuak hasi du jardunaldi hori.



“

(Aldizkariak irratitelebistek baino arrakasta handiagoa izan dute) beharbada ereduarekin asmatu zuelako *Arrasate Pressek*, eta, jakina, zer edo zerk ondo funtzionatzen duenean eta hori zabaltzen denean lana errazagoa da, ez da hutsetik abiatzea bezala.

Bestetik, telebistaren jarduera garestiagoa da, eta eskatzen du konpromiso handiagoa udaletatik, aldundietatik... Halaber, euskararen normalizaziorako bidean, Eusko Jaurlaritzak oso argi izan du aldizkariari laguntza eman behar zuela, baina ez telebista eta irratiei. Nire ustez, Jaurlaritzak pentsatu behar luke une honetan garrantzitsua dela estrategikoki herri telebistei ere diru laguntza ematea”.

ASIER ARANGUREN

Euskaldunon Egunkaria
1999.X.30

Zure hildakoen eskela,
eskerrona edo urteurrena
jarri nahi baduzu,
oraintxe duzu aukera
Arrasate Pressen eta ATBn.

Argibideak ☎ 943 71 23 91.

Ofiziale Elkarteen Gida

Elektrizitatea

- Aranzabal Koop. E.
Zerkaosteta, 15 ☎ 943 79 68 21 / 670 57 53 83
- Arrasate Elektrizitatea
Gipuzkoa etorbidea, 37 ☎ 943 79 65 93

Eraikuntza enpresak

- Berecibar
Santamaina, 34 ☎ 943 79 09 63

Igeltsaritza

- Izcue Irurzun
Munar, 6 ☎ 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Igeltsoak - Apaintzea

- Pako eskaiolak S.L.
Markulete, 14 ☎ 943 77 08 21

Iturgintza

- Aretxabaleta
Durana, 16 behea (Aretxabaleta) ☎ 943 79 17 53
- Egia iturgintza
Gipuzkoa etorbidea, 39 behea ☎ 943 77 01 85
- Txorrota
Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea ☎ 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Margoak

- Apain
Matiena, 3 - 1 ☎ 943 79 61 56 / 689 04 91 17
- JOVI
Ferrerias, 36 behea ☎ 943 79 12 87

Gida honetan azaldu nahi baldin baduzu, deitu 943 71 23 91 telefonora.

Udal zergak %2 igoko dira



Zabor bilketa ere garestituko da.

Herriko zergek, oro har, %2ko igoera izango dute datorren urtean. Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak igoko direla esan nahi du horrek.

Erabakia aho batez onartu zen osteguneko osoko bilkuran. Orain Ordenantza Fiskalak jende aurrean daude. Norbaitek erreklamaziorik aurkeztu nahi badu, 30 eguneko epea izango du horretarako. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin betiko onartuko dira aldaketak.

Datorren urtetik aurrera herritar bakoitzak apurtxo bat gehiago ordaindu beharko du hilerriko zerbitzua erabiltzeagatik, zaborra ateratzearen, eta baita ura erabiltzeagatik ere. Musakolako kiroldegira joanez gero, prezioak aldatuta aurkitu ditugu 2000. urtetik aurrera.

ITURBIDE GARESTIEN

Baina, dudarik barik, Iturbide Egoitzak izango du igoerarik handiena. %20 igoko da egoitza erabiltzeagatik ordaindu beharrekoa kopurua. Horrez gain, egoitza erabiltzeko legeak ere zehaztu ziren osteguneko bilkuran. Hau da, erabiltzaileen ezaugarriak zehaztu eta horien arabera zergak ezarri dira.

ZERGEN IGOERA:

	%
Ondasun higiezinaren zerga:	0,81
Jarduera ekonomikoaren zerga:	3,50
Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga:	2,00

Udal hilerriko zergak:

Panteoiak:	1.128.650 pezeta
Hormako hilobiak:	70.000 pezeta
Hezurtegiak (hamar urterako):	14.330 pezeta

Etxeko zaborren bilketa: 1.560 pta/hiruhilero

Etxeko ur zerbitzua (30m³, gutxienez): 67 pta/hiruhilero

Kiroldegia:

Urteko ordainketa: gazteak:	7.725 pezeta.
nagusiak:	12.900 pezeta.
famiariak:	20.250 pezeta.
erretiratuak:	4.750 pezeta.
ikasleak eta langabeak:	9.675 pezeta.
federatuak: gazteak:	5.800 pezeta.
nagusiak:	9.675 pezeta.

- Horrez gain, noski, kiroldegiko bestelako zerbitzuek ere izan dute aldaketarik.

Iturbide egoitza: %20ko igoera.

- Egoitzari dagozkion ordenantzetan ere hainbat aldaketa izan da.

Azoka:

Saltoki iraunkorra edo postu berezia: 1.225 pta/m²/hileko.

Udal Euskaltegia: ohiko ikasleei, orduko: 140 pta.
enpresetako ikasleei, orduko: 150 pta.

Amaia Antzokia alokatzea:

irabazteko asmoa duten erakundeentzat (BEZ barne): 286.075 pta/eguna
irabaz asmorik bariko erakundeentzat (BEZ barne): 57.215 pta/eguna

Jaiotzak

- Elsa Martínez Muñoz. Urriaren 18an.
- Unai García Ruiz de Aretxabaleta. Urriaren 19an.
- Aritz Uribe Salgo Sánchez. Urriaren 21ean.
- Lur Medrano Hervas. Urriaren 22an.
- Ander Alonso Griñón. Urriaren 24an.

Ezkontzak

- Javier Ramón Pascual Ponte eta María Pilar Hernández de Jauregi Blanco. Zibilez. Urriaren 16an.

Hildakoak

- María Rocha Cano. 85 urte. Urriaren 27an.

Arrasate Garatu elkartearen izendapen berriak

Arrasate Garatu elkartearen Administrazio kontseiluko lehendakaria eta bestelako kideak pasa den osteguneko izendatu ziren, hileroko osoko bilkura hasi baino ordu laurden lehenago.

Pasa den otsailean sortu zen Arrasate Garatu elkartearen Administrazio kontseiluko lehendakaria eta bestelako kideak Jose Mari Loitiren agintealdian.

Orduan elkartearen kideak ere izendatu ziren, hauteskundearen ondoren, kide berriak izendatu dira orain.

Horrela bada, Xabier Zubizarreta izango da elkartearen presidentea; bestelako kideak, berriz, oraingo Gobernu Batzordekideak: Ino Galparsoro, Itsaso Garai, Jose Mari Urizar "Ametzu" eta Joseba Ugalde.

Eusko Jaurlaritzak prest dago Deba Bailara zeharkatuko duen tranbia ipintzeko

Joan den asteko ostiral arratsaldean, Deba bailarako alkate guztiak Aramaion bildu ziren, hango alkatearekin batera, Eusko Jaurlaritzako Alvaro Amman Garraio sailburuak deituta. Sailburuak proposamen harrigarria egin zien: Eskoriatzan hasi eta Debaraino, Debarroa zeharkatuko duen tranbia bat ezartzea.

1968ko urtarrilaren leian kendu egin zuten Maltzaga-Gasteiz eta Lizarrarainoko bidea egiten zuen trena. Harrezkero ez da trenik ibili hemengo lurretan. Poliki-poliki, burdinbidearen lurrak beste zeregin batzuetarako erabiltzen hasi dira: leku batzuetan paseatzeko, eta beste batzuetan eraikinak egiteko. Trena kendu zutenetik, gainera, izugarri areagotu da errepideko zirkulazioa.

Ostiraleko proposamenak harridura sortu zuen bi arrazoi nagusirengatik: batetik, tranbiak orain arte hiri eremuetan erabili izan direlako nagusiki; eta bestetik, lehenengo burdinbidearen lurretan bidegorria egitea erabakita zegoelako. Alkateek galdetu omen zioten horretaz sailburuari eta proiektu biak egingo direla erantzun omen zien: batzuetan elkarren ondoan joango dira eta beste batzuetan aparte, zenbait kasutan tranbia herrietan sartuko da eta.

Debarroko alkateek ondo



Hiri eremuetan erabili dira, batez ere, tranbiak.



Tranbiak ez omen du oztopatuko bidegorria.

hartu zuten Garraio sailburuaren proposamena. Datoren urtean, Garraio Sailak ikerketa lan bat egingo du, proiektua bideragarria den ala ez aztertzeko.

BIDEGORRIA

Badirudi, bada, tranbia eta bidegorria eskutik joango direla. Hala ere, bidegorrien kontu hau aspalditik dator. Las-ter sei urte izango dira Eusko

Jaurlaritzak Gune Parte Hartzaileak antolatu zituela, Eibar-Gasteiz autobidearen kome-nigarritasuna aztertzeko. Deba bailarako 400 bat herritar aukeratu ziren, autobidearen inguruan zeuden iritziak eta proiektuak aztertu eta erabakitzeko.

Lau hilabeteen proiektu eta iritzi asko aztertu zituzten. Denetan iritzirik onena jaso zuena, bai edukiz eta bai formaz, bidegorriarena izan zen. Proiektu honetan bidegorria egitea proposatzen zen, lehen-go burdinbidea aprobetxatuz.

Harrezkero hainbat urrats egin dira: Arabako Foru Aldundiak, esate baterako, bidegorri bat egin du Gasteiz eta Gatzaga lotzen dituen. Gatzagak eta Mankomunitateak ere burdinbidearen hainbat zati errekupeatu dituzte. Joan den maiatzean ere jardunaldi batzuk egin ziren Arrasaten, gai horren inguruan.

Azkenik, orain hilabete pasatxo, Eusko Jaurlaritzak enpresa bati adjudikatu zion bidegorria egiteko proiektua. Orain hamar bat egun, gainera, Antton Jaime Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio diputatuak berretsi egin zuen Debarroa zeharkatuko duen bidegorria egingo dela.

Noiz egingo da, orduan? Legeak dioenez, autobidea bukatu eta urtebetera, eginda egin beharko litzateke.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE




ANDALUZIA BERGARAN

Bergaran Andaluzjaren Eguna zela eta, hantxe izan ziren Arrasateko Al Andalus elkarteko dantza taldea eta abesbatza. Herriko

pilotalekua jendez gainezka zegoela, "Salve Rocieroa" eskaini zuten beste ekitaldi batzuen artean. Amaieran, Bergarako Udaleko

oroigarri bat eta Xamatx dantza taldearen Agurra jaso zituen Mondragoeko taldeak.



MONDRAGOEKO GIRALDILLAK

Antxon Urrusolo eta Lourvier's taldeak "100% vascos" izeneko saioa eskaini zuten Amaia Antzokian ostiralean. Jende dezente bildu zen hura ikustera, tartean bi partaide "berezi". Pankarta bana zeramatela, euskal presoak Euskal Herriratzea eskatu zuten. Apurtxo batez programa etenda egon zen, baina laster bi lagunak jaitsi egin ziren, jendearen txaloen artean.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55


Pentium III 450 Mhz **!!! 96.200,- !!!**

MONTTE eta Eskolako Gotzon Arregi irakaslearen eskaintza:

Semitorre ATX Kutxa. 133 Mhz-tako Plaka basea. Intel Pentium III 450 Mhz-tako Prozesagailua. 64 MB RAM Dirram. 8,4 GB Seagate/Fujitsu Disko gogorra. AGP 8 MB Intel 740 Tarjeta grafikoa. Sound Blaster 128 Soinu Tarjeta. CD-Rom 48x IDE Samsung. 180W Bozgorailuak eta Mikrofono Estereoa. Multimedia teklatura eta Internet-erako Web Xagua. Sistema eragilerik gabe. 3 urteko bermea.

Zure datuak (fakturan agertuko diren datuak adierazi):

Izena eta abizenak:	NAN.:
Helbidea:	Zk:
Herria:	Posta-Kodea:
Telefona:	e-mail:
Kontakturako pertsona:	



X batez zure aukera adierazi:

X	Deskribapena	Prezioa
	Ordenagailua (Monitorerik gabe)	96.200,-
	15" Monitorea. Targa. Digitala 0,28 dp. Res 1024x768. Hitachi hodia. Entrelazatu gabea. MPR II. EPA	20.200,-
	17" Monitorea. Targa. Digitala 0,28 dp. Res 1280x1024. Hitachi hodia. Entrelazatu gabea. MPR II. EPA	34.500,-
	Ikasleentzako Windows 98 lizentzia	6.400,-
	Windows 98 OEM	13.900,-
	Pentium III 500 Mhz prozesagailu anpliazioa	+8.900,-
	128 MB RAM Memoria anpliazioa	+12.400,-
	13 GB Seagate/Fujitsu disko gogor anpliazioa	+3.900,-
	AGP 32 MB Riva TNT2 tarjeta grafiko anpliazioa	+9.500,-
	DVD Panasonic 6x/32x irakurle aldaketa	+5.700,-
	HP-7570 (24x/2x/2x) regrabagailua	25.300,-
	HP-8210 (24x/4x/4x) regrabagailua	34.100,-
	100 MB barne ZIPa	12.400,-
	56.600 bps barne modena	4.900,-
	HP DeskJet 610c inprimagailua	15.000,-
	HP DeskJet 710c inprimagailua	21.700,-

ZER EGIN:

Berriro ere, Arrasateko Gotzon Arregi irakasleak MONTTE-ri bere konfiantza eskaini dio, osatzen duen ikasle zerrendaren banatzaile izendatzean. Aurtan, urtean 3.500 ordenagailu saltzeak eskaintzen dizkigun aukerak zuei eskaintzen biziki saiatu gara.

Interesatuta bazaude, hau da egin behar duzuna:

Orri honi kopia bat atera eta behar bezala bete.

Aurrerapen moduan, 10.000,- pta. sartu ondorengo kontu zenbakian:

Kutxa 2101 0298 65 0001950914

OSO GARRANTZITSUA: Eskatu iezaiozu Kutxari zure NAN zenbakia erreferentzia moduan jartzeko (orri honetan jartzen den zenbaki bera izan behar du).

AZAROAREN 15.a BAINO LEHEN, goian adierazten ditugun dendetarik edozeinetara ziurtagiria eman, edo 902 308888 Fax zenbakira bidali, orri honekin batera.

10/15 egun barru, zure ordenagailua prest dagoenean, aurreko kontu zenbaki berean bigarren ordainketa egin dezazula eskatuz deituko dizugu.

Hurbil zaitze aukeratu duzun dendara eta zure NAN eta Kutxako bigarren ziurtagiria erakutsi eta ordenagailua emango dizugu.

OHARRAK:

Inork ordenagailu bat baino gehiago nahi balu, pauso hauek ordenagailuak adina aldiz eman beharko litzuzke.

Kopurua

%16 B.E.Z.

- Aurrerakina (10.000,Pta)

Guztira

Jasotzeko Tokia Adierazi:

ARRASATE

BILBO

DONOSTIA

BEASAIN

GASTEIZ

Ehun eta bat urterekin, Sa

1898ko ekainaren 1ean ireki zituen ateak Santa Ageda izenez Euskal Herrian aski ezaguna den Ospitale Psikiatrikoak. Aristokratikoei hain gustuko zuten bainuetxe izatetik buruko gaitzak zituzten gaixoen eritexe izatera pasaz. Mende bat pasatu ostean, Europako buru osasuneko zentrorik aurreratuenetakoa da, eta etorkizunerako plangintzetan ere buru-belarri sartuta dago.

Aita Benito Menni izan zen San Juan de Dios Ospitale Psikiatrikoaren lehenengo sustatzailea. Aspaldidantik zuen Euskal Herrian gaixoak babesteko fundazio bat sortzeko asmoa. Eskoriatzan egin zuen lehenengo saiakera, eta laster zabaldu zuen estatu espainarrean buruko gaitzen lehenbiziko etxetako izan zena. "Demente, txirri eta pentsionistezako eritexea, Jesusen Bihotzeko Gure Amaren izenpean" jarri zion izena. Gaixo mentalak, gerrako elbarriak, umezurtzak eta adineko babesgabeak zaintzeko helburuarekin ireki zuen. 1876ko otsailean gerrateak izan zuen amaiera bortitzak eta indar politikoen korrelazio-



San Juan de Dios ospitaleko erizain eta gaixoak mendeurrena ospatzeko ekitaldietan.

ak, ordea, Eskoriatzako eritexea ateak ixtera behartu zuten.

BAINUETXETIK OSPITALERA

Sasoi hartan aristokrata ugari etortzen zen Santa Agedako bainuetxera. 1897ko abuztuaren 8an, ordea, Angiolillo anarkista italiarrak Antonio Canovas del Castillo Ministroen kontseiluko presidentea erail zuen tiroz bainuetxeko galeria batean. Eraiketa hark ospe txarra ekarri zion bainuetxeari, eta bainuetxearen jabe zen Mendia sendiak instalakuntzak saltzeko erabakia hartu zuen. Aita Menni Mendiatarrekin harremanetan jarri zen segituan, eta San Juan de Dios Ordena Ospitalarioak eta Jesusen Bihotzeko Ahizpa Ospitalarioen Kongregazioak eskuratu zuten bainuetxea. Berrehun eta berrogeita hamar mila pezetaren truke 28.448 metro koadroko azalera jabetu ziren.

Euskal probintzietako

buru-urriak jasotzeko etxea eraiki nahi zuen fundazio berriak. Eritetxeak 1898ko ekainaren 1ean hasi zuen ibilbidea, 66 gaixorekin. Kopuru hori handituz joan zen, eta instalazioak eskasegi geratu ziren pazienteei behar bezalako zainketa eskaintzeko. Horrela, egoitza handitzeko lanak hasi zituzten.

BI OSPITALE

Bi zentrok osatzen dute Europako buru-osasuneko zentrorik aurreratuenetakoa hau: Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleek. Jesusen Bihotzeko Ahizpa Ospitalarioek "La Rosa" elkarte osatu zuten, eta hori da Aita Menni eritexearen ordezkaria. "El Iris", berriz, San Juan de Dios Ordena Ospitalarioarena. Ospitalea erosterakoan, bi elkarteek jarri zuten dirua eta banatu egin zuten eritexea. Horrela, gizonezko gaixoak fraideenean sartzen zituzten, eta emaku-

mezkoak mojen ospitalean. Horrela funtzionatu izan du denbora luzez.

SAN JUAN DE DIOS

1915. urtean hainbat egitasmo jarri ziren abian San Juan de Dios ospitalean: gaixoen senitartekoentzako ostalua, Sortzez Garbiaren pabiloia eta eliza eraiki ziren, eta Aramaio ibaia estali egin zen. Eritetxeari herrialde aurreratuagoetakoen norabidea eman nahi zitzaion, estatuko psikiatrikoak nahiko atzeratuta baitzeuden tratamendu eta antolaketa aldetik.

1930. urtean gizonezkoen atalerako mediku zerbitzu eskusiboja jarri zen, eta ordua

"Denei egin behar izan da bidezkoa ematea ospitalea emakumez"



Aita Benito Menni.

Santa Ageda indarrean

arte "Osasun Etxe" deitzen bazioten ere, "Eritetxe Psikiatriko" izena eman zioten. 40. hamarkada arte hainbat hobekuntza egin zituzten erakuntzetan, baina Espainiako Gerra Zibilaren ondorioz, bi klinika psikiatriko ezarri behar izan zituzten: Armadaren gaixo mentalentzat eta gerrako presoentzat.

Gerra bukatuta, zabal-kuntza eta berriztatze lanak egin zituzten ospitaleko pabiloi eta lorategietan, eta pilotalekua eta futbol zelaia ere eraiki zituzten.

1950. urtetik aurrera hainbat proiektu hasi ziren: gaixoentzako soinu-dun zinea, telefonogunea... 1960. hamarkadan, administraziorako bulegoekin bat Camacho pabiloiko lantegiak (abarketak eta otarrak egiten ziren han) eta geroago inprenta sortu zuten. "Salud y Alegría" aldizkaria argitaratzen zuten han. Hogei urteren bueltan ospitaleak egitura eta instalakuntza txukunak zituen, eta 25 anaiak, lau barne medikuk eta zortzi adituk (psikiatrak, erradiologoak, odontologoak eta anestesistak) ziharduten sasoi hartan gaixoak zaintzen.

BIRMOLDAKETA

Europar psikiatria arloan zeuden aurrerakuntzak 70. hamarkadako bukaera aldera iritsi ziren San Juan de Diosera. Bes-

talde, administrazio publiko-tik ere eman zitzaion bultzada ospitaleko mugimenduari, eta eritetxe psikiatrikoak ospitalizazio unitate moderno bilakatzeko lehen urratsak egin zituen.

1992an etorri zen hurrengo berrikuntza handia, ospitaleak Arrasateko Udalari pabiloi berriak eraikitzeko baimena eskatu zionean. 1993ko maiatzean hasi ziren lanok, eta urtebete geroago psikogeriatria arloa bideratuko zen beste eraikin bat egiten hasi ziren. Ospitaleak 2.262 milioi pezeta inbertitu behar izan zituen lan horietan. 1997ko apirilean egin zen berrikuntza guztien irekiera ofiziala.

AITA MENNI

Duela hamar bat urte, Aita Menni zentroa zerbitzu berriak eskaintzen hasi zen, eta alde batera utzi zen gizon eta emakumezkoen banaketa hori. Zentro bakoitzeko zerbitzu berriak pertsona guztiei eskaini

nahi zitzaizkien, bereizketarik gabe. Juan Carlos Aristorena Aita Menniko prentsa arduradunak esan bezala, "denei egin behar zitzaien eskaintza. Ez da bidezkoa emakumeei soilik egitea, ospitalea emakumezkoena delako".

Gaur egun 300 bat langile ari dira Aita Mennin lanean, eta hainbat unitate eskaintzen ditu: Psikogeriatria unitatea (250 bat ohe), egonaldi luzeko gaixoentzako (beste 200 ohe inguru), egonaldi ertainentzako (45 ohe), Uribe auzoko eguneko ospitalea (20 plaza dituen), gazteentzako psikiatria unitatea (9 ohekoa) eta garuneko gaitzetarako unitatea (20 ohekoa).

Horrez gain, lantegi babes-tua ere badu Aita Mennik Uribe auzoan, eta baita eguneko zentro psikogeriatriko ere. Bilbon burmuin gaitzetarako zentroa ere badu Aita Mennik, baina ambulatorio izaera duena.

BABESTUTAKO ETXEAK

Arrasaten sei etxebizitza ditu Aita Mennik, errehabilitazioa gaitzitu ondoren nora jo edo familiarik ez duten gaixoentzat. Juan Carlos Aristorenak adierazi digunez, "autonomia osoz antolatzen dute beren bizimodua, nahiz eta ospitale-tik begiraleren batek ere egiten duen jarraipena".

101 urte bete dituzte dagoeneko Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleek, baina etorkizunean ere urratsak egiten segitu nahi dute. Legezko psikiatria eta bioetikaren arloan urratsak egin nahi litzukete Aita Menniko arduradunek etorkizunera begira. San Juan de Dios eritetxeak, berriz, Sustantziek Sortutako Gaitzen unitatea eta Eguneko Zentru Okupazional bat sortu nahi ditu, besteak beste.

Maidar Osa



Aita Menni ospitalaren itxura gaur egun, kanpoaldetik.

tzaien eskaintza. Ez
almei soilik egitea,
mezkona delako".

IÑAKI MENDIGUREN (ITZULTZAILEA)

“Arrasatek izaera be

1954an jaio zen Ezkion eta 1995ea arte Arrasaten bizi izan zen hamabost urtez. Itzultzaile lanetan aritzen da, baina Filosofia eta Zientzietan lizentziatu zen, Historia adarrean, Deustuko unibertsitatean. Oraintsu Irun Hiria saria irabazi du eleberri atalean. Bere bigarren liburua da eta jasotzen duen bigarren saria. “Ilunkerako Xuxurlak” liburuarekin eskuratu du bigarren sari hori.

— Zertaz da “Ilunkerako Xuxurlak”?

— Aita-alaba batzuen arteko 68 eskutitzek osatzen dute eleberria. Aita zahartua dago, gaixo, etsita, bakarririk, alargunduta eta artzain protestantea izandakoa da. Alaba azken hogeitau urteotan etxetik kanpo bizi zaio, bere garaian hasarretu zirenetik. Aitak alaba berreskuratu nahi du.

— Nolakoak dira elebe-

rri honetako pertsonajeak?

— Oso desberdinak dira. Aita dogmatikoa da. Kristautasunaren eta bizitzaren aurrean jarrera zorrotza dauka. Moral aldetik oso puritanoa, kontserbadorea, tradizionala, fundamentalista, ortodoxoa.

Alaba, berriz, erabat kontrakoa: nortasun gogorrekoa, feminista konbentzitua, oso bizizalea, liberala, heterodoxoa, hedonista eta lesbiana. Beste emakume batekin eta haren semearekin bizi da.

— AEDren sorreran parte hartu zenuen. Zein oroitza-pen duzu?

— AEDrena zerbait egiten hasi nahia izan zen, zer oso ondo jakin gabe. EHE zegoen, baina elkarte indartsu bat ez. Bilera lehor asko egin genituen. Pertsona potente batzuk ere egon ziren, kooperatibatik zetozenak, proiektuari beste dimen-


sio bat eman ziotenak. Klabea izan zen kolore askoko jendea elkartzea lortu genuela, zatiketa politikoak Euskal Herrian gauza asko antzutu zituen eta. Hemen, ordea, lortu zen hori gaitzitea.

— Asko aldatu da Arrasate zu etorri zirenetik?

— Fisiokoki bete egin da ikeragarri, trafikoa, etxeak... Baina esan

behar da hemen gauza eder asko egin direla estetika aldetik: Monterron eta Santa Barbarako parkeak, esaterako. Arrasate ondo hartu gintuen herria izan zen. Nire lagunik onenak hemen utzi nituen.

Nire bihotzean badu halako leku berezi bat. Faltan aurkitzen dut, adibidez, Monterongo liburutegia, eta hemengo kultura dinamika ere bai. Arrasatek arlo askotan du izaera berezia eta kultura arloan duen dinamika ez da toki



“Hainbeste jendek euskara ikastea, ez da harrizkoa kalitatea horren ona ez izatea”

rezia du”

askotan aurkitzen.

— Irakaskuntzan ere aritu zara, ezta?

— Ofizialeko lehenengo urtean. Garai hartan ez zegoen motibazioarik euskara ikasteko.

Gero Irakasle Eskolan euskara, euskal geografia, morfosintaxia, euskal literatura...

— Itzulpegintzan noiz hasi zinen, bada?

— Poliki-poliki izan zen. Urte sabatiko bat hartu nuen eta Ingalaterrara joan nintzen. Itzulpenak egiten hasi nintzen eta irakaskuntza lana ordezkatzeko joan. Administrazioaren hizkuntza eskakizunen eskolak eman ditut orain bi urtera arte.

— Eta itzulpengintzatik?

— Batetik etxean lan egiten dudala, ordutegi eta jeferik barik. %50 argitaletxeetarako itzulpenak eta %50 itzulpen komertzialak egiten ditut,

enpresentzako. Argitaletxeetarako itzulpenak oso politak dira. Gehienak haurrentzako eta gazteentzako literatura, gai politak, entretenigarriak. Horiak pezetatan ez dira errentagarri izaten bizi izateko eta horregatik egin behar izaten ditut bestelako itzulpenak.

— Zein hizkuntzatatik itzultzen duzu?

— Literatura, gehien bat ingelesetik euskarara eta komertzialak gehienak gaztelaniatik euskarara. Elizen Arteko Biblia (euskara batuan dagoen biblia bakarra), taldelean; Alexis de Toquevillen *Amerikako Demokrazia*, Pentsamenduaren klasikoetarako, frantsesetik euskarara. Eta orain Arnold Toynbeeren *Historiaren Azterketa*, Pentsamenduaren klasikoetarako. Lau bat urte daramat horrekin.

Nestor Basterretxeak bere bizitzako oroitzapenak idatzi

nahi ditu, gaztelaniaz eta euskaraz. Oso lan polita, baina oso zaila. Oso bizitza aberatsa izan du eta hori dena euskaraz argitaratu nahi izatea, euskaldunontzat kontuan hartzekoa da.

— Euskara nola dago kalitatez?

— Kalitatearekin kezka badaude. Baina ikuspegi diakroniko batetik, ikaragarriko aurrerapena egin da. Hutsune asko daude, baina baita optimista izateko gauzak ere. Hainbeste jende euskara ikastea, kalitatea horren ona ez izatea ez da harrizkoa. Bi erderen eragina ikaragarria da. Denok elebidunak izatea izugarriko eragozpena da; euskara beharrezkoa izatea oso zaila baita, militanzia eta motibazio bat ez baldin badago. Hizkuntza bat egiteko gizarte-giro bat behar da eta naturaltasunez sentitzea. Orain ez da garairik txarra eta abertzaleen arteko batasun-

naren ondorioz, aurrerapauso handiak egingo dira.

— Herri prentsak zein euskara erabili behar du?

— Euskara batua edo euskalki normalizatuak. Batua baldin bada ere, tokian tokiko lexiko eta esamoldeak erantsi beharko lituzte.

— Askok aldatu da itzulpengintza?

— Hiztegegintzan izugarriko aurrerapena egin da eta horri esker lan egin dezakegu. Normalizazioaren prozesua bete-betean bizi izan dugu eta hor ere urrats handiak egin dira. Baina ingelesetik, frantsesetik eta italieratik euskararako hiztegiaren hutsuneak daude. Itzulpengintzaren teoriari ere asko lan egin da. Ez da nahikoa euskaraz jakitea itzulpenak egiteko; teknika bereziak eta metodologia behar dira. ■



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Baserri auzoetako alkate berriak izendatuta

Mondragoeko baserri auzo-
etako alkate berriak izenda-
tu dira. Bik errepikatu egi-

ten dute alkate moduan eta
sei berriak dira. Baserri auzo
bakoitzak bere kabuz auke-

ratu du auzoko ordezkaria.
Ondoren, pasa den ostegu-
neko osoko bilkuran, zine-

gotziek berretsi egin zituzten
izendapenak. Modu honetan
geratu da, beraz, zerrenda:



**Jone Bergaretxe
Uribarri**

Hirugarren aldiz jarraian
aukeratu dute alkate. Asmo
nagusiak dira: eliza aurreko
plaza konpontzea, bolatoki
bat egitea eta Gautxori eta
Auzo Lagun arteko paseale-
kua argizatzea.



**Aitor Murgoitio
Udala**

Bigarren agintealdia du. Uda-
larako plan berezia egitea
eskatuko du. Bestelako
proiektuak egiteko ezinbes-
tekoa ikusten du hori lortzea.



**Fermin Aginagalde
Musakola**

Orain zortzi urte auzo alka-
te izan zen. Egi Haundi base-
rriko bidea konpondu eta
baserriek auzoarekin dituzten
komunikabideak hobetu nahi
ditu.



**Antxon Ugalde
Bedoña**

Auzoko saneamendua berriz-
tea eta bideak behar bezala
ipintzea dira bere ardura nagu-
siak.



**Inazio Zuazubiskar
Meatzerreka**

Baserri bideak egin beharra
dago auzoan; baita auzoko
kontuak eztabaidatzeko bile-
ra toki bat ere.



**Loreto Nafarrate
Gesalibar**

Gasa eraman nahi du auzora
eta aparkalekuekin dituzten
arazoak konpondu.



**Jose Mari Etxagibel
Garagartza**

Auzoak bizi duen garapena
modu egokian bideratzea izan-
go da bere lanik handiena.



**Gabino Mujika
San Andres**

Takolo inguruan automobi-
lek hartzen duten abiada han-
dia da bere kezka nagusia.

LASER DEPILAZIOA


Itaca Zentru Mediku eta Estetikoa



AZKARRA, BEHIN BETIKOA, MINIK GABE

Konsulta eta aurrekontua konpromisorik gabe.

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS 492/98



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

Deba Garaiko banatzaileen bigarren eskuko autoen lehenengo erakusketa

- 100 auto baino gehiago
- Marka guztiak
- Prezio guztiak
- Berme osoa






ARRASATE • Azaroak 6 eta 7 (9:00etatik 19:00etara)

Arruena Parkea (Hiper Eroskiren ondoan)



Antolatzaileak



Taupadak aurkezten du

MARI SORGIN

Haurrentzako txotxongilo emanaldia

AMAIA
ANTZOKIA

Azaroak 6, larunbata
Arratsaldeko 17:00etan

Sarrera: 300 pta.



ARRASATEKO UDALA

Kultura Saila ■

Flaurrei gustatzen zaie kirola egitea



Iaz baino neska-mutiko gehiago ari dira aurten Arrasate Kirol Proiektuan (AKP). Hori aurreko asteetan ere esan dizuegu. Baina dagoeneko talde bana-keta ere egin dute arduradunek eta futboleant eta saskibaloian, esaterako, iaz baino talde gehiago ari direla adierazi digute, infantil mailan. Ez da gauza bera gertatu ordea, eskubaloian. Iaz infantilen talde bakarra aritu zen eta ez zirenez oso fin ibili, aurten ez da talderik atera.

Futbolak badirudi harrera hobeia izan duela. Iaz neskek lau talde eta mutilek beste bi

sortu zirtuzten. Ustez mutilen kirola den honetan, beste bederatzita neska talde osatu dira futboleant aritzeko aurten bailaran. Iaz baino hiru talde gehiago.

Saskibaloian ere talde bat gehiago ari da aurten, infantiletan. Neska talde bat eta mutiletan hiru talde osatu dituzte aurten hauek.

☺ PARTIDA NON?

Infantilen partidak larunbatean jokatu dira. Musakolan arituko dira mutilek futboleant eta Atxabalpen neskek. Saskibaloian partidak, bestalde, San Viatorren jokatu dira.



San Viator A-B taldeak.

Taldez talde

FUTBOL TXAPELKETA

MUTILAK

	P	JP	I	B	G
La Merced	3	1	1	0	0
Txanxiku 1A	3	1	1	0	0
Ipintza DBH	1	1	0	1	0
Txanxiku 1B	1	1	0	1	0
Almen	1	1	0	0	1
Aranzadi	0	1	0	0	1
SFX	0	0	0	0	0
Kurtzebarri	0	0	0	0	0
Aozaratza	0	0	0	0	0

NEKAK

	P	JP	I	B	G
Torrebaso	3	1	1	0	0
Almen	3	1	1	0	0
San Viator	3	1	1	0	0
La Merced	3	1	1	0	0
Aranzadi	0	1	0	0	1
Elgeta	0	1	0	0	1
SFX A	0	1	0	0	1
SFX B	0	1	0	0	1
Aranzadi	0	0	0	0	0

P: puntuak • JP: jokaturako partidak • I: irabazitakoak • B: berdindutakoak • G: galdutakoak



SFX Uribarri neska-mutil taldea.

Asteko hitzorduak

FUTBOLA

MUTILAK

Musakolan

10:00 La Merced - Ipintza DBH

11:30 SFX - Txanxiku 1B

NEKAK

Atxabalpen


09:00 SFX A - Aranzadi A

09:00 SFX B - Elgeta


10:15 La Merced - San Viator

Mendi irteera

Bigarren mendi irteera antolatu dute dagoeneko AKPko arduradunek. Mendigoizaleak aspaldian helburutzat duten Elgeako mendilerroa hautatu dute AKPkoek ere. Azaroaren 21ean izango da irteera. Elgeako mendilerroan dagoen Aumategi gainera joango dira eta handik, Arabako aldetik Araotzera jais-teko asmoa dute.



SASKIBALOIA Dagoeneko lider




Jaun eta jabe izan zen Kenci-Arrasate saskibaloitalde Iturripen. 37

puntu aldea ateratzen Logroñoko Patria Hispana taldeari. Defentsa pertsonal bikaina egin zuten Lander Errastiren taldekoek. Lehen zatiaren amaierara 55-37 iritsi ziren. Partida, 97 eta 66. Arrasatearrak lehenengoak dira sailkapenean, Lizarrako Ega Pan taldearekin berdinduta. Eta aste honetan nafarrak izango dituzte aurrez aurre. Beraz, irabazi egin beharko dute lider izaten segitzeko.

Partida horretan ez da Alvaro Koka izango. Kokak orkatila bihurritu zuen eta lehen zatia amaitu aurretik laga egin behar izan zuen jokalekua.

XAKEA Oraingoan, ezin




Hondarribiko laukotea hobea izan zen joan den larunbatean San

Andreseko Xake Taldearen egoitzan. Herriko laukoteak 1 eta 3 galdu zuen: bi partida galdu eta bi berdinketa.

Ohiko bi jokalariek, Josu Tornayk eta Luis Ortegak, ez zuten jokatu eta bi ordezkari osatu zuten laukotea, Prietok eta Arriaranek. Dirudienek, horrek eragina izan zuen emaitzan, jokalariek adierazi zuten. San Andres xake taldekoak laugarren daude sailkapenean eta galdu egin dute lehen jardunaldian lortu zuten goiko tokia. Asteburuan Oretako Fomento Culturalen aurka arituko dira. Maila handiko taldea da eta erronka, beraz, garrantzitsua.

ESKUBALOIA Hurrengoan?




Urduritasuna izan zen gazte mailako Arrasate-Almen taldearen

aurkaririk gogorrena joan den asteburuan. Urolaren aurka galdu egin zuten Jesus Mari Herreoren jokalariek.

Lehen zatiaren amaierara gol bateko aldearekin iritsi ziren bi taldeak. Bigarren zatian, ordea, berriz ere urduritasuna tarteko defentsan, kaleak egin zituen etxeko taldeak eta urolarrek 5 goleko aldea egin zuten. 20 eta 24 amaitu zen partida, Urolaren alde.

Senior mailako taldeak ere ez zuten zorterik izan. Urnietan jokatu zuen eta nahiz eta hasiera batean partida irabaziko zutelako zirudien, azken 10 minutuetan aukera guztiak galdu zituen.

FUTBOLA Liderrarekin ezin



Mutrikuarrek nagusitasuna erakutsi zuten Atxabalpen, Mondraren

aurka. Esti Loitiren taldeak estreinatutako markagailua, partida hasi eta 20. segundura. Maite Iturriarenekin egin zuten golari esker. Baina mutrikuarrek berehalako berdindu eta aurreratu egin ziren. Lehen zatiaren bukaera 1 eta 3.

Bigarren zatian, mutrikuarrek nagusi. Mondrako zelaiaren erdian sartuta egon ziren. Beste bi gol sere sartu zituzten. Gauzak horrela, 1 eta 5 galdu zuten etxekoek.

Aste honetan berriz ere etxean jokatu dute. Legazpiko taldea eskuragarriago da. Nahiko talde berria daukate eta horrek partida parekatu egiten du.

Emaitzak

ERRUGBIA

- Seniorrak:
Zarautz 7 - Arrasate 20

FUTBOLA

- 2. errejional maila:
Zumaiako 0 - Mondra 0
- Ohorezko gazteak:
Mondra 1 - Hondarribia 2
- 2. gazteak: Ilintxa 6 - Arrasate 2
- Ohorezko kadeteak:
Eibar 2 - Arrasate 0
- 2. kadeteak: Aurrera de Ondarra 0 - Arrasate 3
- Ohorezko infantil maila:
Arrasate 4 - ST Lizeoa 1
- Errejional maila, neskek:
Mondra 1 - Mutriku 5

ESKUBALOIA

- Seniorrak: Urnieta 29 - Arrasate - Almen 21
- Gazteak: Arrasate Almen 21 - Urola Irimo 23

SASKIBALOIA

- Seniorrak:
Kenci Arrasate 97 - Patria Hispana 66
- Kadeteak, neskek:
Eskoriatza Almen 44 - Arrasate 7

PILOTA

- Gazteak:
Arrasate 22 - Deba 7
- Kadeteak:
Arrasate 20 - Tolosa 22

Jokatzeak

ERRUGBIA

- Seniorrak: Arrasate - Arratia, larunbata: 16:00
- Jubenilak: Arrasate - Bera Bera, igandea: 11:30
- Kadeteak:
Hernani - Arrasate

ESKUBALOIA

- Seniorrak:
Arrasate Almen - Urola, igandea: 12:00.
- Gazteak:
Bergara - Arrasate Almen
- Kadeteak:
Arrasate Almen - Elgoibar, igandea: 10:30

FUTBOLA

- 2. errejional maila:
Mondra-Urola
- Ohorezko gazteak:
S.Tomas Lizeoa - Mondra
- 2. gazteak:
Arrasate - Antzuola, igandea: 16:00
- Ohorezko kadeteak:
Arrasate - Ondarroa, larunbata: 11:45
- 2. kadeteak:
Elgoibar - Arrasate
- Ohorezko infantil maila:
Tolosa - Arrasate

- Errejional maila, neskek:
Mondra - Ilintxa, igandea: 11:30

SASKIBALOIA

- Seniorrak:
Ega Pan - Kenci Arrasate
- Gazteak:
Ordizia - Kenci Arrasate
- Kadeteak mutilak:
Askatuak B - Kenci Arrasate
- Kadeteak neskek: Kenci Arrasate - Almen larunbata: 10:30

PILOTA

- Seniorrak:
Tolosa - Arrasate
- Juniorrak:
Altza - Arrasate
- Kadeteak:
Arrasate - Hernani, larunbata: 12:00



Azaroaren 13an, Zaldibarrera

Bi multzotan banatuko dira taldeak:

A MULTZOA

- Ume Zikinak
- Xas Ugarte
- Goma 2
- You Know
- Irati STS
- Betrayer
- D.A. Iriztu
- Orlando
- Etxe Mobil
- Sokoakoak
- Bar Nuevo
- Saukelu Scream
- AC Surkos
- Giraldilla Connection
- Kanpazar Harrobia
- Totem
- Komando Alpargat
- Lontxo
- Fraguel Gol
- Kobate Harrobia DKB
- Atxanta el Retorno
- AT Lokala

B MULTZOA

- SAS-T
- Makanudos
- Garaje Oscar
- Aldibi
- Branka Taberna
- Etixerat Taberna
- Timofotl SMD
- EPEH
- AKTA
- Serengeti
- Dribling
- Alai Gozokiak
- Koka Juniors Basati
- Kamasutra
- Aurrera Bolie
- Potroak
- KK Jaurilaritziari
- Leya
- Txeyenex
- Borrrck & Roll
- IKP
- Makai



44 taldek eman dute izena Zaldibarko futbito txapelketan.

Azaroaren 13an hasiko da aurtengo Zaldibarko areto futbol txapelketa. Aurten 44 taldek eman dute izena. Ohitura den bezala, gainera, sekulako izen bitxiak hautatu dituzte jokalariek.

Aurten ere Bonba Taldiek antolatu du txapelketa. Bere bigarren txapelketa da. Iaz bai-

no talde gutxiagok eman dute izena. Hori dela eta, bi multzo nagusi baino ez dira egongo: A eta B. Antolatzaileek esan dutenez, "hasiera batean txapelketa San Joan egunean amaituko da. Bigarren aldira multzo bakoitzeko zortzi talde pasatuko dira".


Gara trofeoa, lehen urteko afizionatuentzat

Gara egunkariak Gara sariak banatu zituen ostegunean Bilbon. Afizionatuetan lehen urtea egin duten txirrindulariei ematen die saria egunkari honek.

Irabazlea Banaka taldeko Haritz Arruti izan da. Baina Born Jay taldeko eta Ulma taldeko bi txirrindulari ere badira lehen hogeita bosten artean. Asier Atxa (Ulma) atxabaldarra, bostgarren sailkatu da eta Angel Vazquez (Born Jay) hamabigarren. Biek 98-99 denboraldian estreinatu dira



Angel Vazquez.



Asier Atxa.

afizionatu mailan. Iaz ez zen trofeo hau banatu Eginen itxiera zela eta. Aurten

Garak berreskuratu egin du trofeoa, lehen urteko afizionatuak saritzeko.

ANUSKA ELORZA (EHE-KO KIDEA)

“Euskararen bilakaera erakutsiko dugu”

Orain dela hiru urte sortu zen Arrasaten Euskal Herrian Euskaraz taldea. Anuska Elorzak lau bat hilabete daramatza taldean lanean, euskara sustatzeko asmoak bultzaturik. Berak kontatu digu azaroaren 8tik 14ra bitartean EHE taldeak Arrasaten antolatu duen Euskararen Tunela ekimenaren berri.

— Zer da Euskararen Tunela?

— Euskal Herrian Euskaraz taldeak hogeitun urte egin ditu, eta Euskal Herriko hainbat herritan ekimen bat egiten ari da, euskarak orain arte Euskal Herrian izan duen bilakaera erakusteko asmoz.

— Zer dela eta Arrasatera?

— EHEren zuzendaritzak erabakitzen du zein herritan egin. Dagoeneko Hernanin, Billabonan eta Azpeitian izan da eta orain Arrasatera etorriko da. Helburua euskararen aldeko sentsibilizazioa lantzea, euskararen bilakaera zabaltzea eta herriko bizilagunei kultura arloko hainbat ekimen eskaintzea da.

— Euskarari buruzko erakusketa bat ere antolatu duzue.

— Lau gune izango ditu. Gune bat “Zibilizazioa” gaiaren ingurukoa da. Euskararen jatorriari, hedapenari, euskalkieei, lurraldeari, historiari... buruzko teoriak eta mapak azalduko dira bertan. Beste bat “Liburu Beltza” da, Euskarak historian zehar pairatu dituen egoerak erakutsiko dituena. Euskalgintzaren ingurukoa ere badago. Azken hogeitun urteotan euskalgintzak egin duen lana azpimarratu nahi du horrek, eta euskarari buruzko txartel eta pegatinen erakusketa ere egingo da. Bai Euskarari ekitaldiaren bideoa ere erakutsiko da.



Azken gunean, “Etorkizunerako erronkak” izenekoan, euskalgintzak lantzen dituen ildoen inguruko gogoeta eta azterketa egingo da: irakaskuntza, justizia, ofizialtasuna, komunikabideak, teknologia eta hainbat arlo landuko dira.

— Ikastetxeetara egin dituzue gonbidapenak.

— Bai. Erakusketa hau interesgarri jotzen dugunez, herriko ikastetxez gain, eskualdekoei ere etortzea proposatuko diegu.

— Eta beste ekintzarik antolatu duzue?

— Azaroaren 12an 21:30ean afaria izango da Roneoko enparantzan ezarriko den karpan. Afariaren xedea euskaltzaleok elkartu eta harremanak lantzea da, eta bertsolariak eta trikitilariak ere izango dira. Azaroaren 13an EH Sukarra eta Iskanbila taldeen kontzertua izango da eta igandean umeentzako Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak.

aste gazte

■ KONTZIENTZIA ERAGOZPENA

• Intsumisioa edo objekzioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, zatorz Gazte Bulegora eta bertan emango dizugu paperak tramitatzeko behar duzun informazioa.

■ DIRU LAGUNTZAK

• Alemaniako DAAD zerbitzuak eta La Caixa Fundazioak, Alemanian hainbat ekintza egiteko diru laguntzak aurreikusi ditu: ikasketa eta ikerkuntza lanak egiteko, alemaniera ikasteko, ikasketa bidaiak egiteko, udako unibertsitateetan parte hartzeko, e.a. Horietarako hainbat epe daude.

■ LANA

• Añorbeko liburutegirako arduradun bat behar dute. Epea: azaroak 10.

• Bergarako Udalean udaltzain bat behar da. Epea: azaroak 10.

■ IKASTAROAK

• Leintz Zeramika Eskolak, zeramika ikastaro bat antolatu du, hastapen eta sakontze mailatan. Ikastaroa astearte eta ostegunetan izango da 19:00etatik 21:00etara. Izen emateko Gazte Bulegoara etorri.

■ LEHIAKETAK

• Artisau gazteei zuzenduriko Bilbao Hiria artisautza lehiaketa. 17 eta 25 urte arteko gazteei zuzendua, baldin eta profesional edo autonomo gisa lanik egiten ez badute. Gaia librea, eta neurriari dagokionez, neurririk handiena ez da metro bete baino luzeagoa izango. Epea: azaroak 30.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Erakusketa, afaria, kontzertua eta pailazoak izango dira, besteak beste”

ATB

Programazioa

OSTIRALA 5

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza. Eulali Mazkieran sukaldariaren plater bat.
- 13:45** Musiklasik. Iñaki Olaizolak aurkeztutako saioa (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak. Eguneko albisteak, Maider Osak aurkezturik.
- 21:30** Astebete. Maider Osak astean izandako albisterik garrantzitsuenak errepasatuko ditu.
- 22:00** Gatza ete Berakatza (errepika.)
- 22:15** Soinuz Blai. Azken orduko bideo klipak, Miren Gonzalezek aurkeztuta.

LARUNBATA 6

- 13:30** Jolasplast, Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Musiklasik, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA 7

- 13:30** Jolasplast, Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Musiklasik, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA 8

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza. Eulali Mazkieranek prestatutako platera.
- 13:45** Astebete (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.

- 21:30** Mondrasport. Itxaro Zubillagak eta Xabier Urzelaik asteburuan kiroletan izandakoaren berri azalduko digute.
- 22:00** Gatza eta Berakatza (errepika.)

ASTEARTEA 9

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza. Eulali Mazkieranek prestatutako platera.
- 13:45** Astebete (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Hamaika Magazin. Astrologia, sexualitatea, osasuna... Arantzazu Lagunillak eta Ubane Maderak aurkezturik.



Maitena Zubia.

ASTEAZKENA 10

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza. Eulali Mazkieranek prestatutako platera.
- 13:45** Hamaika Magazin (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Aurrez Aurre. Edurne Mujikak Joxe Bixente Etxabe elkarrizketatuko du.
- 22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).

OSTEGUNA 11

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza. Eulali Mazkieranek prestatutako platera.



Eulali Mazkieran.

- 21:30** Guganda. Aintzane Gardokik aurkeztutako programan, bailarako gobernuz kanpoko taldeek eskuartean dituzten proiektuen berri izango dugu.



Aintzane Gardoki.

- 22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).
- 22:15** Soinuz Blai. Miren Gonzalezek emango digu musikan gertatu diren azken nobedadeen berri.

OSTIRALA 12

- 13:30** Albiste Aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza, Eulali Mazkieran.
- 13:45** Guganda (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Astebete. Asteko albisterik inportanteenak, Maider Osak aurkeztuta.



Maider Osa.

- 22:00** Gatza eta Berakatza (errepika).
- 22:15** Soinuz Blai. Miren Gonzalez.

Gatza eta Berakatza

Sukaldaria: Eulali Mazkieran (Matikua jatetxea) Aretxabaleta.

NOIZ

Astelehena 8:
Asteartea 9:
Asteazkena 10:
Osteguna 11:
Ostirala 12:

PLATERA

Zainzuri beteak.
Marmitakoa.
Buztana.
Txapiroiak saltsan.
Fruta-tarta.

Denetik apur bat

Hamaika Magazin asteartea, 21:30



Monika, Arantzazu eta Ubane hirukotea.

Uztailetik ari dira Arantzazu Lagunilla, Ubane Madera eta Monika Montero *Hamaika Magazin* saioa lantzen.

Gainerako magazineta bezala, denetik apur bat eskaini nahi zuten. Gai interesgarriak eta ikus-entzuleentzat erabilgarriak izango zirenak aukeratu dituzte: sexualitatea eta osasuna, esate baterako. Horrekin batera, gai arinagoak: astrologia, eskulanak eta lorak.

Sexualitateaz hitz egiteko Arrasateko Sexualitate Bulegoaren laguntza izan dute. Maitena Zubiak eta Ana Oiartzuk parte hartzen dute saioan.

Osasunaren atalean Osakidetza egindako hainbat bideo erabiltzen dituzte. Astero-astero, Jasone Aretxabaletak hainbat gai jorratzen ditu, jendearen ongi izatearekin lotuta.

Astrologiaz hitz egiteko nor egokiagorik Karmele

Barandiaran, Donostian bizi den mondragoetarra baino?

Lorak maite dituztenek ere badute zer ikusirik saio honetan. Mondragoeko loradenden laguntzarekin, lora bat aurkezten da astero: ezaugarriak, zaintzeko modua, etab.


Sexualitatea eta osasuna atal iraunkorrek izango dira. Gabonetatik aurrera, berriz, bestelako gaiak jorratuko dira; grafologia, esate baterako.

Saio hau ATBtik kanpo grabatzen da oso-osorik. Aurkezpenak, adibidez, Mondragon Hotelean egiten dira. Sexualitateari buruzko atalak, ostera, Arrasateko Sexualitate Bulegoan. Ekaina arte hementxe izango duzue *Hamaika Magazin*, dagoeneko harrera ezin hobeia izan duen saioa.

Datorren asteartean hormona bidezko antisorgailuak; Aries, Leo eta Sagitario (suaren zeinuak) eta Columnea lora azalduko dira.

Ardi kontuak

Aurrez Aurre asteazkena, 21:30



Edurne Mujika eta Joxe Bixente Etxabe.

“Joxe Bixente Etxaberen aitajauna, Eskoriatzako Marin auzokoa, ardiekin zebilen mendian, sekulako elurteak harrapatu zuenean. Menditik jaitsi behar izan zuen ardiekin eta Arrasateko Musibar baserriaren inguruan paraje ederra aurkitu zuen aterpea hartzeko.

Joxe Bixenteren amandrea alargun zegoen baserrian, marindarra ezagutu zuenean. Handik gutxira ezkondu egin ziren eta harezkerok ardiak izan dira beti Muxibar baserrian. Ehun eta hogeitabat urte pasatu dira egun hartatik”. Horrelako kontu ederrak kontatu zizkion aspaldi ez dela Joxe Bixentek berak Marian Porceli.

Aitajauna artzain, aita artzain eta Joxe Bixente bera ere artzain. Datorren asteazkenean, normala den bezala, ardi kontuak izango dira nagusi *Aurrez Aurre* saioan. Edurne Mujikak Joxe Bixente Etxabe izango du mintzakide eta aurrekoa bezalako kontu politak aterako dira solasaldian.

Alfonso Gorroñogoitia-

rekin eta, hasi zen eskolan Joxe Bixente, baina hamabi urte zituela mendira jo zuen, ardiak zaintzera. Hasieran izan zituen gorabehera batzuk, fabrikan lanean hasiteko tentaldia ere bai, baina azkenean bere bizimodu bihurtu zuen artzaintza eta oraindik ez dela damutzen dio.

120 bat ardi ditu eta udaberrian Degurixara eramaten ditu, han larre ederra dute eta. Sei bat hilabete egiten dute han —Kurtzebarri barranean ere ibiltzen ditu, Goronaeta inguruetan— baserriara jaitsi arte.

Egunero goizeko zortziak aldera jaiki eta jetzi egiten ditu ardiak. Esnearekin gazta egiten du.

Ondo ezagutzen ditu bere ardiak. Bakoitzak bere ize-na eta nortasuna du. Txakurra, nola ez, lagun banaezina du.

Horrelako kontuak izango dituzte hizpide gure solas-kideek.

Joxe Bixente hizlari ona da eta kontu faltarik ez du. Aspaldiko kontuak, izadiaren usainarekin. Gustuko baduzue, adi egon!

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Zarautzen, erdialdean, guztiz jantzitako etxebizitza salgai: sukaldea, bi logela, egongela, bainua eta ganbara. Tel.: 943 79 55 28 eta 656 71 57 72.

• Madalena kaleko 13an, hiru gela, sukalde-jantokia, egongela, komuna, trastergia eta ganbara duen etxea saltzen da. Tel.: 630 39 36 21. 21:00-21:45.

3. Errentan emateko

• San Bizente kalean 60 m²ko etxabea alokatzen da, berogailu eta guzti. Erabilera askorako baliagarria. Tel.: 943 79 18 95.

• Jendea behar da Eskoriatzako etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 943 71 55 01.

4. Errentan hartzeko

• Ikasle batek gela bat alokatuko luke etxebizitza batean, Arrasaten. Tel.: 943 79 47 85.

• Gela bat alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 79 03 99.

• Gela bat alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 62 13 57.

5. Etxeak osatzeko

• Neska bat behar da Arrasaten, etxebizitza osatzeko. Tel.: 600 64 61 38. 20:00-22:00.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Arrasateko erdialdean dago. Tel.: 630 02 60 45. Xabier.

• Neska bat behar da Arrasaten etxebizitza osatzeko. Tel.: 600 64 61 38. 20:00-22:00.

GARAJEAK

10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 42 65.

• 90 m²ko toki bat saltzen da Olar-

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

ETXEBIZITZAK

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

ETXEBIZITZAK

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otarora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

te kalean, 43 bis. Tel.: 943 77 03 96.

14. Errentan emateko

• Gimnasio bat errentan jartzen da. Tel.: 943 77 07 06.

• Garaje itxia alokatzen da, Erguin auzoan. Tel.: 943 79 13 97.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

• Uribarri etorbidean 90 m²ko lokaia alokagai, lanak eginda. Tel.: 943 79 75 37.

LANA

17. Eskaintza

• Pertsona nagusiak zaintzen ditut gauean. Tel.: 610 01 06 10. Belen.

• Esperientziadun emakumea etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 943 79 11 46. Larunbat eta igandeetan.

• Mutila prest publizitate edo gutunen banaketa egiteko. Tel.: 943 79 11 46 eta 943 79 98 83.

• Neska gaztea prest asteburuetan

lan egiteko. Tel.: 943 79 42 54.

• Emakumea prest atariak, bulego, etabarreko garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 77 06 74.

• Ospital laguntzaile tituludun neska prest arratsaldean lan egiteko, pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 943 79 81 25. Gauetan.

• Erizain kualifikatuak gaixoak zaintzeko prest, etxean, ospitalean edo zerbitzu berezietan. Tel.: 609 55 54 66. Gauez.

• Neska, umeak zaintzeko prest. Eskola partikularrak ere emango lituzke, ingelesa bereziki. Arrasaten eta Eskoriatzan. Tel.: 606 75 59 13.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Neska prest orduka garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 71 53 74.

18. Eskaerak

• Bordatuak egiten esperientzia duen pertsona bat behar da. Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Esperientzia duen jostuna behar da, Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Neska bat behar da arratsaldean denda batean lan egiteko. Euskaraz egitea ezinbestekoa da. Interesatuok bidali zuen datuak 259 posta kutxatilara.

• Pertsona bat behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 77 17 97 eta 639 45 85 08.

• Pertsona bat behar da sukaldean lana egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Abokatua behar da, 35 urtetik beherakoa. Esperientzia ez da beharrezkoa. Curriculum Arrasateko 54 postakutxatilara bidali.

• Zerbitzaria behar da asteburuetarako. Tel.: 945 44 50 86.

• Neska bat behar dugu etxeko lanak egiteko eta umeak eskolara eramateko. Beharrezkoa autoa edukitzea. Tel.: 943 77 01 73 eta 616 92 49 88. 20:00etik aurrera deitu.

• Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 77 15 71.

• Prestakuntzarako kontsultore bat behar da, komunikazio teknikan eta giza harremanetan trebatua eta esperientziaduna. Interesatuok 656 41 08 16 telefonora dei dezakete.

• Dendaria behar da. Tel.: 943 79 12 31.

• Emakumea behar da umeak zaintdu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 609 03 31 65.

• 25-45 urte bitarteko emakumea behar da Arrasateko arropa denda batean arratsaldetan lan egiteko. Tel.: 943 79 16 12.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• OHoko eta DBHko eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

• Ingeleseko eta OHoko eskola partikularrak emango nituzke. Euskaraz eta gaztelaniaz. Tel.: 943 79 94 98.

• Eskola partikularrak emango nituzke, maila guztietan, goi batxilergoa barne. Tel.: 943 79 48 09. Itziar.

• Ingeleseko eskolak ematen ditu. Talde mugatuak, egun osoan. Tel.: 943 79 18 70.

• Ingeles filologia ikasten ari den gazte batek, ingeleseko eskolak emango lituzke. Tel.: 943 71 47 85.

• 1. eta 2. Hezkuntza eskolak ematen dira, euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

21. Eskaerak

• Latinezko eskolak hartzeko irakasle bat behar dut. Tel.: 943 79 81 73. 20:00etatik aurrera.

• DBHko matematikako eskolak hartuko nituzke, 3. mailan. Euskaraz. Tel.: 943 79 17 51. Itsaso.

MOTORRA

23. Saldu

• Automobila salgai. Seat Ibiza 1992koa, egoera onean. Tel.: 943 79 23 58.

• Autoa salgai, Renault 1.9. RT Diesel. 18 hilabetekoa eta hainbat osagarrirekin. Oso egoera onean. Tel.: 609 46 44 12.

• Peugeot motor berri-berria salgai. Zennith 49 c.c., granatea. Prezioa.: 160.000 pta. Tel.: 943 77 11 68.

• Auto hondatuta salgai, 15.000 pezetatan. Gurpil berriak. Tel.: 943 79 37 68.

• Suzuki SJ413 salgai, hagu, krodadura homologatuta. Lau gurpil eta olana oparian. Prezioa: 535.000 pta. Tel.: 943 78 14 72.

DENETARIK

26. Saldu

• Salomon Evolution eskiak salgai. Egun batean erabilia. 205 neurrikoak. Fijazio eta guzti. Prezio onean. Tel.: 943 79 26 16. 13:00-13:30. Tel.: 943 79 68 31. Urtzi.

• Behin bakarrik erabilitako 39-40 zenbakiko Boreal mendiko botak salgai, handiak ditut eta. Onak, Gore tex. Kranpoiekin erabilgarriak. Tel.: 943 79 55 83.

• Chaman piragua salgai. "Compartimento estanco" du, txaleko berezia, pala, "cubrebañera"; autoan eramateko barrak prezioaren barruan. 50.000 pta. Tel.: 943 77 01 74. Felix.

• Baserriko kiwiak salgai. Tel.: 943 79 97 84.

• Labea salgai, 16 litrokoa. Berria, prezinto eta guzti. 10.000 pta. Tel.: 630 22 25 22. Arratsalde. Ehunate.

• Hiztegi enziklopedikoa salgai. Batxiller, LH eta unibertsitateko ikasleentzat egokia. Tel.: 943 77 05 97.

• HIFI musika katea salgai: pletina, sintonizatzaile, disko jogailu, eta hiru bideko bi baffle. Prezioa negoziatzeko.

Tel.: 943 77 05 97.

• SWR Twelve Bass Combo Celestine marka duen 100 Wdun amplifikadorea eta Ibañez baxu elektrikoa dagokion kutxatila eta mantenu osagaiekin batera salgai. Ondo zainduta eta egoera onean. Tel.: 943 79 94 49. Oskar.

• Idazmakina elektronikoa eraman-garria salgai; kalitate handiko inprimatzea. Olivetti PT 505. Tel.: 943 79 99 29. 19:00-21:00.

• Rot Weiler txakurrak salgai. Interesatuok deitu 943 71 48 53 telefonora.

• Bulego altzariak salgai (mahaia, aulkiak), oso merke. Tel.: 943 79 84 35.

• Egoera onean dauden mahai bat (80 zm. x 1m.) eta lau aulki salgai. Prezio ona. Tel.: 943 79 61 83.

• Ekonomika salgai. Egurra errez ura berotzen du, iturri eta berogailuetakoa. Tel.: 943 76 62 36.

27. Erosi

• Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke. Tel.: 943 77 04 98. Irene, egunez.

• Xoxoa disketeak ateratako LPak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar, etab. Tel.: 943 52 65 77.

29. Eman

• 1,35 m. neurriko koltxoia oparitzen da. Tel.: 943 79 48 02.

32. Aurkitu

• Puntuako txaleko marroi eta griza aurkitu dut autobus geltokian, Interesatuok jo Abaroara eta Tere Guri-diz galdetu.

33. Bestelakoak

• Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 19.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Deba Garaiko grafologo batekin harremanetan jarriko ginateke. Tel.: 943 71 25 11.

• Gasteizera arratsaldeko 16:00ak aldera egunero autoz baldin bazoaz, gastuak banatuko nituzke. Tel.: 943 79 58 88. Maite, gaez deitu.



Punta puntako musika

Ostegunero ATBn
22:15ean



Soinuz blai



1948. urte inguruko argazkia dugu aste honetakoak. Aste Santua zen eta, ohi-turak agintzen duen moduan, prozesioak egiteko garaia. Bi egiten ziren orduan Aste Santuan, ostegunean bata eta ostiralean bestea. Irudi ugari eramaten zen, gainera. Jesusen bizitzako azken bost-sei egunetako gertakizun garrantzitsuenak irudikatzen ziren, pausoekin, irudion bitartez.

Argazkiko hau, Jesusek zigorkada hartu zueneko unea da. Ikusten duzuenetz, Jesusen ondoan Mondragoeko *Katxo Borratxoak* daude. Jerusalemgo Tenpluko Apaiz Gorenak Jesus epaitu zuenean zirikatzen aritu ziren soldadu erromatarak irudikatzen dituzte *Piper* eta *Tomate Katxo Borratxoek*.

Argazkian azaltzen direnak honakoak dira: aurre aldean, Bartolo Barrena da, Zigorrolako Don Paulo apaizaren aita. Ezkerretik hasita, pausoari heltzen dagoen gizonezkoa, Jose Antonio Gallastegi, Intxausti baserrikoa. Beste aldean doana, berriz, Bixente Arregi "Axeri", Bedoña erdikoa baserrikoa.

Argazkia: Axeri familia
Berriemalok: Axeri familia
eta On Jose Maria
parrokoa.

egizabal

Oinetakoak eta poltsak

Olarte, 14 • ARRASATE • 943 79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28

Hona hemen udazkeneko albiste handia

Multi opción delakoarekin

mondeo



focus

Chita 2000 5 ate



Lehenengo **3** ordain sariak oparituko dizkizugu.
Ez zaitez ordaintzen hasi 2000. urteko martxoa arte

DEBA GARAIKO
KONTZESIONARIO OFIZIALA

MUGARRI



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO **RK AUZ**

FAGOR

ALTZARIAK



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51

ARETXABALETA

SUKALDE INTEGRALA



Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55

ARETXABALETA